

## **HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2021/2022 ikasturtea**

### **MUGIMENDU AUTONOMOA ETA PSIKOMOTRIZITATEA: LOTURAK ETA KORAPILOAK ERANSKINAK**

**Egilea: Ariane Mirandona Alvarez**

**Zuzendaria: Nagore Martínez Merino**

**Leioan, 2022ko ekainaren 1-ean**

## **ERANSKINAK**

### **1. Eranskina: Baimen informatua**

#### **UNIBERTSITATEKO GRADU AMAIERAKO LANERAKO ELKARRIZKETAK EGITEKO ESKAERA GUTUNA**

Irakasle agurgarria,

Ariane Mirandona Alvarez naiz, Bilboko Hezkuntza Fakultateko Haur Hezkuntzako Graduako 4.mailako Berrikuntza minorreko ikaslea Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU).

Idatzi honen bitartez, aurtun, unibertsitateko proiektu berri batean parte hartzen dudala komentatu nahi dizuet eta bertan, Gradu Amaierako Lana praktikekin bateratua izan behar da. Hortaz, nire Gradu Amaierako Lana aurrera eramateko Mugimendu Autonomoaren eta Psikomotrizitatearen inguruko hausnarketa egingo dut. Hausnarketa hori aurrera eramateko ikerketa txiki bat egingo dut, non, Mugimendu Autonomoa metodologia erabiltzen duten bost eskola desberdinetako Haur Hezkuntzako irakasle bat elkarrizketatuz. Horretarako, Mugimendu Autonomoaren eta Psikomotrizitatearen inguruko elkarrizketa bat planteatu dut eta zuen ikastetxeko irakasle/hezitzailearen bat elkarrizketatu dezakeedan jakiteko idazten dizuet. Honekin batera, aipatzea elkarrizketa horiek grabatu egingo direla baina soilik ahotsa, ez da irudirik grabatuko (mezu honetan atxikituta bidaltzen dut grabazioak egiteko baimena) eta behin lana bukatuta izan zuekin partekatu ditzaket ateratako ondorioak.

Hortaz, asko eskertuko nizueke elkarrizketa hauek burutzeko tartetxo bat hartzea. GRAL-a amaitu bezain pronto grabazio hauek ezabatuko dira, eta formazio helburua baino ez dutela ere azpimarratu nahi nuke.

Nirekin kontaktuan jartzeko emaila: [arianemirandona@outlook.com](mailto:arianemirandona@outlook.com) da edo  
680967504 telefonoa.

Mila esker zure laguntzagatik.

Adeitasunez.

Ariane Mirandona Alvarez.

## **2. Eranskina: Gidoia**

### **Hurbilketa galderak**

1. Zergatik erabaki zenuen Haur Hezkuntza ikastea?
2. Haur Hezkuntzaz gain beste ikasketarik egin duzu?
3. Hezitzaile bezala, zein izan da zure ibilbide profesionala?
4. Zenbat denbora daramazu profesio honetan?
5. Zenbat denbora daramazu eskola honetan lanean?

### **Mugimendu autonomoa**

6. Azaldu ahal zenidake, nolakoa da egun bat eskola honetan?
7. Nola antolatzen dira ekosistemak?
8. Zer nolako aldaketak ezarri dituzue geletan? Zergatik?
9. Eskola honetara heldu aurretik, noizbait egin duzu lan Mugimendu Autonomoaren metodologian?
10. Zer da Mugimendu Autonomoa zuretzat?
11. Zure ustez, zein ekarpen egiten du Mugimendu Autonomoak Haur Hezkuntzako eskoletan?
12. Eta haurraren garapenean?
13. Hezitzaile moduan, Zer ematen dizu Mugimendu Autonomoak?
14. Eta zer eskatzen dizu?
15. Zer nabarmenduko zenuke mugimendu autonomoaz?

### **Mugimendu autonomoa eta psikomotrizitatea**

16. Mugimendua autonomoa ezarri aurretik, nolakoak ziren psikomotrizitate saioak?
17. Mugimendu autonomoan oinarrituz, aldaketarik egin duzue psikomotrizitate saioetan? Zein? Zergatik?
18. Zure ustez, zein lotura dago psikomotrizitate saio baten eta mugimendu autonomoaren artean?
19. Eta zein desberdintasun?
20. Metodologia aldatzean eskolako gela guztiak aldatu dituzue, psikomotrizitate gela izan ezik... zergatik?

21. Honi buruz hausnartu, eztabaidatu duzue? Zein ikuspegi egon dira gai honekiko?

**Azken galdera**

22. Galdetu ez dizugun zerbait gehitu nahi zenioke elkarrizketari?

### **3. Eranskina: Transkribapenak**

#### **3.1. HAIZEDER**

##### **Hurbilketa galderak**

##### **1. Zergatik erabaki zenuen Haur Hezkuntza ikastea?**

Ez dakit kasualitatez, ez dut esango bokazionala izan zenik, zeren nik lehenengo ikasi nuen ekonomia eta orduan hasi nintzen Bigarren Hezkuntzan klasiek emoten, egoten nintzen zikloetan eta batxilerren kasidek emoten. Eta nire lagun batek esan dozten ia zergaitik ez dogun eitzen Haur Hezkuntza, beti hezkuntzagaz lotute baina hori.

##### **2. Haur Hezkuntzaz gain beste ikasketarik egin duzu?**

Ekonomia.

##### **3. Hezitzaile bezala, zein izan da zure ibilbide profesionala?**

Haizederren nire 6.urtea da, Zaldupe eskolan egon nintzen 5 urte. Allende Salazarren 2 urte, urte bat Barrutin, Durangon eta Galdakanon egon nintzen.

##### **4. Zenbat denbora daramazu profesio honetan?**

16 urte inguru.

##### **5. Zenbat denbora daramazu eskola honetan lanean?**

Nire 6. Ikasturtea, baina tutore moduan bakarrik ikasturte bat, zeren zuzendaritzako plaza hartu neban.

## **Mugimendu autonomoa**

### **6. Azaldu ahal zenidake, nolakoa da egun bat eskola honetan?**

Hurrek sarrera flexiblea dute, hau da, 9:00etatik 9:30etara sar daitezke. Ondoren, bakoitzak nahi duen ekosisteman dabil 10:00ak arte. 10:00etan argiak itzaltzen dira eta batu batu dela esaten da, haurrak batzen hasten dira. Dena batuta dagoenean, bakoitza bere alfonbrara doa bere tutorearekin eta bertan korroa egiten da, nor falta den galdetzen da, zein egun den, norbaitek zerbaiz kontatu nahi baduen... eta ondoren bakoitzak zein ekosistematan ibili nahi duen erabakitzen du. Behin ekosistema erabakita altxatu eta bakoitzak aukeratutako gunera doa.

11:00etan berriz itzaltzen dira argiak eta haurrak berriz batzen hasten dira. Behin dena batuta izan bere alfonbrara itzuli eta fruta jaten da. Jan ondoren, komunikazio igaro eta jolastokira irtetzeko arropa egokia janzten dute. Jolastokian 12:15etara daude, jolas librea, hainbat gune izanik, hala nola, zentzumenak, txirristak, txabola eta oreka. Ondoren, barrura sartu, komunikazio igaro, eskuak garbitu eta berriz bakoitza bere alfonbrara bueltatzen da. Bertan jateko zer dagoen komentatu eta 5 urtekoek menua idazten dute. 12:40-14:40 jantokian eta jolastokian daude eta 14:40-16:10 barrura bueltatzen dira, batzuetan arratsalde, mugi mugi (psikomotrizitatea) izaten dute eta gainontzekoen artean zer egin nahi duten erabakitzen da.

### **7. Nola antolatzen dira ekosistemak?**

Istorioen ekosistema, bizipenen ekosistema, mugi mugi eta musika eta pentsateka ekosistema aurkitzen dira. Ekosistema bakoitzaren barruan mikroekosistemak aurkitzen dira eta hauek umien beharizanen eta nahien arabera hauek aldatzen joaten dira.

Istorioen ekosisteman, arteleku, kuadernoarekin ibiltzeko mahaitxo bat, liburutegia, eraikuntzak eta logiko-matematikoa aurkitzen dira.

Bizipenen ekosisteman aldiz, jolas sinbolikorako eta zientzia arloko espazioa aurkitzen dira.

Pentsatekan, logika lantzeko jolasak aurkitzen dira eta bertan ingeleses aritzen dira.

**8. Zer nolako aldaketak ezarri dituzue geletan? Zergatik?**

Aldaketa nagusia espazioa izan zen, izan ere honek berebiziko garrantzia du hirugarren hezitzailea delako. Beraz, hasieran, gurasoak hormak margozten hasi ziren, kolore neutroz. Gurasoak hasieratik oso alde egon dira. Gero espazioa moldatzen. Hasi ginen altzriak haurren altuerara jartzen, koloreak kromatikoki jarri genituen. Estetikotasuna asko zaintzen da. Dena ordenata ikustean, erakargarriagoa da.

**9. Eskola honetara heldu aurretik, noizbait egin duzu lan Mugimendu Autonomoaren metodologian?**

Ez eta gainera, Haizederren sortu zen Mugimendu Autonomoa.

**10. Zer da Mugimendu Autonomoa zuretzat?**

Begirada umeen garapen mailan jartzea, eta bakoitzak ahal dabena bere abilezien arabera. Haur bakoitzak barruan duena eta bere desioak asetzeko aukera izatea. Irakaslea bertan egotea, akonpainamendu moduan, laguntza ematen eta bideratzeko apur bat, baina ez agintzeko, ez inposatzeko. Haurrak horrela, askatasun bat dauka, zergatik behartu haur bat gauza bat egitera momentu horretan ez baldin badago prest? Azkenean, haurrak berez hasten dira eskatzen, irakurtzen eta hori gurasoak ere esaten digute, nire haurra hasi da kartelak irakurtzen ba guk probokazioak sortuko ditugu.

**11. Zure ustez, zein ekarpen egiten du Mugimendu Autonomoak Haur Hezkuntzako eskoletan?**

Haurrak hobeto ezagutzea. Lehen produkzioa zen, produkzioaren arabera lortu du ala ez eta orain ikusten duzu haur bakoitza zer momentutan dagoen eta zer emoteko gai den eta zein den bere garapen maila. Azkenean, haur bakoitzak



gauza bat deko eskaintzeko eta bat ona dana gauza baten ba horretan inbolukreko da eta ez matematika hizkuntza, betiko arloak.

## **12. Eta haurraren garapenean?**

Autonomia handia.

## **13. Hezitzaile moduan, Zer ematen dizu Mugimendu Autonomoak?**

Inplikazio handia.

## **14. Eta zer eskatzen dizu?**

Inplikazioa eta beti berrizten egotea. Ideia berriak eta umieri entzutea, oso garrantzitsua da zer eskatzen dute, zer behar dute, eta horretarako suposatzen da oharren bidez edo grabaketa bidez ikusten dugu, a beitzu honek hau eskatu deua zelan bideratu, hori da ideala.

## **15. Zer nabarmenduko zenuke mugimendu autonomoaz?**

Begirada umeengan dagoela eta protagonista umea izan beharko lukeela eta hortik abiatu behar garela gu. Gure esku hartzea hortik bideratu behar da.

## **Mugimendu autonomoa eta psikomotrizitatea**

### **16. Mugimendua autonomoa ezarri aurretik, nolakoak ziren psikomotrizitate saioak?**

Azkenean hau izan da, mugi mugi ekosistema aldaketa gutxien izan duen ekosistema, zeren hasiera batetik hori zan helburua. Umea psiko saioan libreak izatea, arau batzuk markata hasiera baten. Aucouturier metodoa baina horregatik uste dot umeak beti psiko gelara doazenien beste txip bategaz jua izen dizela beti.

**17. Mugimendu autonomoan oinarrituz, aldaketarik egin duzue psikomotrizitate saioetan? Zein? Zergatik?**

Ez dogu nabarmendu aldaketarik, berdin jarraitzen dugu.

**18. Zure ustez, zein lotura dago psikomotrizitate saio baten eta mugimendu autonomoaren artean?**

Libre, bakoitzak berari momentu horretan nahi dabena egiten duena edo aukera izatea, berak ateratzeko bere barrutik.

**19. Eta zein desberdintasun?**

Oraindik ere psikorako hainbesteko gogoak izateko oraindik zerbait dago mugimendu autonomoan eta psikoan arteko desberdintasunen bat. Psikora joateko ez du inork ezetz esaten baina ekosistemetan gerta daiteke. Ez dakit zer baina badago desberdintasunen bat.

**20. Metodologia aldatzean eskolako gela guztiak aldatu dituzue, psikomotrizitate gela izan ezik... zergatik?**

Aipatutakoa, azkenean erantzun berdina da. Zeren beti izan da espazio handi bat, libre bat eta materiala izan da ez estrukturatua. Haurrak blokeak hartu eta etxeak egiten dituzte eta beti izan da sormena garatzen duten espazio bat, materialak ez estrukturatuak izan direlako. Orain badugu material anitza beste ekosistematan, material erreala, naturala eta ez estrukturatuak. Adibidez, bizipen ekosisteman dagoen sukaldea estrukturatua da, aldiz psiko gelan sukaldean dabiltzanean beraiek sortutako sukaldea da, orduan, nik psikon hori ikusten dot, azkenean beraiek duten bizipena da desberdina. Psikon beraiek sortzen dute eta horrek imajinazioa garatzea lortzen dute pilo bat eta gero sortzen diren relatoak eta. Material berdinarekin erabilera anitzak ematen dizkie.

**21. Honi buruz hausnartu, eztabaidatu duzue? Zein ikuspegi egon dira gai honekiko?**

Bai, bueno, azkenean ikusten genuen aldaketa gitxien behar zuen espazioa zela eta egia da beste ekosistemetara gehiago zuzendu garela. Arte, zientzia... ez dut gezurrik esango, horrela da. Uste genuen psikomotrizitatea ya lortutako puntu bat zela.

**Azken galdera**

**22. Galdetu ez dizugun zerbait gehitu nahi zenioke elkarrizketari? Nondik sortu zen ideia hau?**

Ez. Zer ez dozu galdetu ba? Dana galdetu dozu. Azkenean, koordinazioa oso inportantea eta haurrak zoriontsu ikustea eta formakuntza. Formakuntza oso oso inportantea dala pentsetan dot eta hori, inplikazioa.

## **3.2. LA BALUGA**

### **Hurbilketa galderak**

#### **1. Zergatik erabaki zenuen Haur Hezkuntza ikastea?**

Nik, egia esanda, lehenengo ikasi nuen musika. Gero ikasi nuen PT eta ondoren ya Haur Hezkuntza. Erabaki nuen gehienbat haur hezkuntza ikastea, eskola honetara etorri nintzenean, etorri nintzen musika plazarekin eta bakarrik Haur Hezkuntza etapa daukagu, eta gero egia esanda gustatu zitzaidan eta horregatik gero erabaki nuen Haur Hezkuntzako espezialitatea ere ikastea.

#### **2. Haur Hezkuntzaz gain beste ikasketarik egin duzu?**

Bai, musika eta PT.

#### **3. Hezitzaile bezala, zein izan da zure ibilbide profesionala?**

Hasieran, ordezkoa nintzenean ibili nintzen bueltaka, danak bezala eta gero ia apurka apurka heltzen zara estabilizazio gehiago izaten, igual bakanteak hartuz eta gero ia oposaketak gainditu eta plaza eskuratzean ba ia finkotasun hori behintzat lortzea niretzako garrantzitsua da, ze be bai ahalbidetzen dizu eskola batean mantentzea denetan inplikatu ahal izatea. Azkenean, alde batetik bestera joaten zara “tapando agujeros”.

#### **4. Zenbat denbora daramazu profesio honetan?**

11 urte.

#### **5. Zenbat denbora daramazu eskola honetan lanean?**

Hau da bostgarren urtea.

## **Mugimendu autonomoa**

### **6. Azaldu ahal zenidake, nolako da egun bat eskola honetan?**

Covid-arekin dena desberdina da eta ezin da Mugimendu Autonomoa ezin dugu, ezin dugulako adinak nahastu.

Sarrera malgua, 2 urtekoak 9:10-10:00ak sartzeko aukera daukate eta 3-4-5 urtekoek 9:10etatik 9:30ak. Familiak harrera egiteko leku bat dauka, gela bakoitzak eta etxeke zapatilak ipintzeko eta bere berokiak uzteko, familiek lagundu ahal dituzte eta gero ia gela barrura sartzen dira, familiekin nahi badute ere bai eta asanblada txiki bat egiten da. Asanblada horretan, ongietorria ematen zaie, azaltzen zaie zein den egungo plana eta gero juaten dira erabakitzen zein ekosistemara joango diren. Gero, 10etatik 11:20etara edo gutxi gora behera, ordutegia ofizialki horrela daukagu baina gero oso malgua da, ekosistemetan egoten dira. 3-4-5 urtekoak igotzen dira ekosistemetara eta nahastuta ibiltzen dira eta bakoitzak aukeratzen du zein ekosistemetan egon. Ondoren, erreferentzia geletara bueltatzen dira eta zapatilak aldatu, nahi duenak hamaietakoa jaten du, normalean fruta eta bakoitzak hartzen du nahi duena eta gero ia patiora joaten dira eta gero, patiotik bueltatu 12:15etan edo, eskuak garbitzeko eta jantokiko baberoak eta hartzeko eta jantokira doaz.

Gero, arratsaldeetan, 4-5 urtekoak izaten dute, psikomotrizitateko saioa dagokienean, hor bai egiten dugula gelaka, eta gero, ingelesa eta hizkuntzalaritza, bueno gehien bat ahoskotasuna lantzeko antzerkiak, jolasak eta horrelakoak. Erdia ingelesera eta erdia horretara eta gero aldatzen dugu. Gainontzeko arratsaldetan egoten dira erreferentzia geletan. Gero 3 urtekoek aukera daukate siesta egiteko edo ez, hori familiek erabakitzen dute. Batzuk siestan daude eta beste batzuk erreferentzia geletan edo psikogelan edo dagokien horretan daude. 2 urtekoek bai edo bai egiten dute siesta.

### **7. Nola antolatzen dira ekosistemak?**

Zientzia, mundu musikala, pentsateka, ametsen mundua eta baratze-sukaldaritza.

## **8. Zer nolako aldaketak ezarri dituzue geletan? Zergatik?**

Hasieran, hasi ginen gehienbat hezitzaile danok biltzen eta hausnarketak egiten planteatzen apur bat nolakoak izan behar zuten gelak. Ba, koloreak, mobiliarioak, materialak, geletan zeuden geruza desberdinak; hau da, ambientea apur bat, estetikoki eta gero funtzionalki. Nola izan behar zuten mobiliarioa beraien altuerara, delimitatu, goxoa, argitsua, elementu naturalak. Horrekin hasi ginen gehienbat, egindako aldaketak ohiko geletan zeuden milaka mahai, armairu denak atera eta saiatu benetan umeentzako altueran jartzen saiatu. Haiek era autonomo batean mugitu ahal izateko espazioak sortzen eta momentuan nahi duten hori egiteko aukera izatea.

## **9. Eskola honetara heldu aurretik, noizbait egin duzu lan Mugimendu Autonomoaren metodologian?**

Ez.

## **10. Zer da Mugimendu Autonomoa zuretzat?**

Niretzako egia esanda, hezitzaile moduan ematen dizu benetan zure lana disfrutatze gogo hori, ze azkenean, hilabetero edo egunero suertatzen dira egoera desberdinak, zuk ateratzen dituzu material batzuk helburu batzuekin baina konturatzen zara nola umeek ez duten hainbeste gida behar, haiek ere sortzen dituztela hainbat gauza eta orduan igual, konturatzen zara edo hasten zara planteatzen ia zein den gure rola benetan eta zer egiten dugun gaizki. Haurrentzako da kristolako askatasuna eta babesa, ze azkenean, nik uste dut, metodologia honetan sentitzen direla askoz ere erosogoa. Zeren, daukaten protagonismoa da askoz ere handiagoa.

### **11. Zure ustez, zein ekarpen egiten du Mugimendu Autonomoak Haur Hezkuntzako eskoletan?**

Alde batetik, hezkuntza komunitate osoa gehiago inplikatzeko. Zeren, azkenean gehienbat, hezkuntza komunitate osoa, udaletxeak ere bai (guk behintzat gauza asko eskatzen dizkiogulako) baina gero familien inplikazioa bebai.

### **12. Eta haurraren garapenean?**

Niretzako lehen igual, 4 urteko gelan zituzten lau txoko, eta txoko bakoitzean zegoen fitxa edo jolas bat eta denek egin behar zuten hori. Orduan, mugimendu autonomoak eta ekosistemen planteamendu hau da askoz ere zabalagoa eta ia ez duzu hainbeste kontutan izaten umeen adina baizik eta garapen kognitiboa, emozionala, ez dago ekintza bakar bat eta itxia. Baizik eta gero ume bakoitzak aukeratu dezake zein ekintza eta zenbateraino den gai ekintza hori garatzeko.

### **13. Hezitzaile moduan, Zer ematen dizu Mugimendu Autonomoak?**

Nik apur bat lehen esan dizudana. Guk ere, birplanteatzea, zer egiten ari ginen gaizki, zer den benetan garrantzitsua.

### **14. Eta zer eskatzen dizu?**

Egia da lana dela askoz ere gehiago, ze azkenean igual ohiko geletan zuk dituzu lau gauzatxo eta Mugimendu Autonomoak eskatzen dizu ia aldaketa hori, zuk ez daukazula gela baten tutorizazio. Bazik eta haur guztiak direla danonak, orduan behaketa egin behar duzu 3-4-5 urtekoena edo klaustro mailan adostua izan behar du.

Koordinazio eta inplikazio handia.

**15. Zer nabarmenduko zenuke mugimendu autonomoaz?**

Gehienbat haurren hezkuntza kalitatea askoz hobeto bermatu daitekeela, indibidualizatuagoa. Azkenean, aukera ematen du gauza gehiago indibidualizatzeko.

**Mugimendu autonomoa eta psikomotrizitatea**

**16. Mugimendua autonomoa ezarri aurretik, nolakoak ziren psikomotrizitate saioak?**

Oraingoaren berdinak. Aucouturierren metodologia.

**17. Mugimendu autonomoan oinarrituz, aldaketarik egin duzue psikomotrizitate saioetan? Zein? Zergatik?**

Ez da aldaketarik ezarri. Guk daukagu psikomotrizitate gela bat eta bai daukagula eskola mailan adostuta nola landu behar diren saioak. Hasierako, sartzean zer egiten dugun, saioa nola banatu eta guzti hori.

**18. Zure ustez, zein lotura dago psikomotrizitate saio baten eta mugimendu autonomoaren artean?**

Ez dakit zein lotura dagoen, zeren guk ez daukagu horrela montautu. Klaustro mailan eta formakuntza jaso ostean erabaki genuen hori, egon behar zuela iruditzen zitzaigula garrantzitsua ematea behar duen espazio osoa.

**19. Eta zein desberdintasun?**

Psikomotrizitate saioak bere garrantzia propioa du eta behar duen pisua eman behar zaio.



**20. Metodologia aldatzean eskolako gela guztiak aldatu dituzue, psikomotrizitate gela izan ezik... zergatik?**

Guk ez daukagu psikomotrizitate saioa Mugimendu Autonomoaren barnean sartuta, hau da, ekosistema bezala planteatuta. Iruditzen zaigu, Haur Hezkuntzako etapan psikomotrizitateak daukala pisu handia eta eskaini behar zaizkiola saio bereziak hori lantzeko

**21. Honi buruz hausnartu, eztabaidatu duzue? Zein ikuspegi egon dira gai honekiko?**

Bai, gehienbat planteatu genuena izan zen hori, psikomotrizitate saioak ekosistemetan sartu, Mugimendu Autonomoan sartu, eta zergatik bai eta zergatik ez, zertarako, hau da, analizatu apur bat horrek dakarrena.

**Azken galdera**

**22. Galdetu ez dizugun zerbait gehitu nahi zenioke elkarrizketari? Nondik sortu zen ideia hau?**

Ez, nire partetik apur bat era orokorrean azaldu dizut.

### **3.3. OTXANDIO**

#### **Hurbilketa galderak**

##### **1. Zergatik erabaki zenuen Haur Hezkuntza ikastea?**

Ni bokazioz hasi nintzen magisteritza iklasten. Betidanik gustatu izan zait bidelaguntzan aritzea eta haur bakoitzak erronka bat suposatzen du niretzat. Lan kreatiboa da eta beti desberdina pertsonak ere desberdinak garelako

##### **2. Haur Hezkuntzaz gain beste ikasketarik egin duzu?**

Ingeleseko habilitazio bat dut eta horri esker ingeleseko klaseak ere eman ditzazket HH eta Lehen Hezkuntzan.

##### **3. Hezitzaile bezala, zein izan da zure ibilbide profesionala?**

Magisteritza amaitu eta 4 egunetara Gasteizko San Viator ikastetxean lan egiteko deitu ninduten. Elkarrizketa bat egin zidaten eta bertan hasi nintzen ikasketak bukatu berri 20 urterekin. 12 urte ostean aldaketa behar nuela otu zitzaidan. Lan egiteko modu bakarra zegoen (nahiz eta gaur egun distantziaz ikusita, pentsatzen dut han ere gauza asko ikasi nituela, eta bertan egiten nituen hainbat gauza gaur egun oraindik ere nahiz eta metodologia horren desberdina izan, erabilgarriak direla) haurrek bai edo bai irakurri eta idatzi behar zuten lehenengo mailara iritsi aurretik. Sentitzen nuen nolabait bertan gelditu ezker ez nuela profesional moduan aurrera egingo ez nuela eboluzionatuko eta bertatik irten eta OPE-rako prestatu nintzen Gasteizko Mariturri eskola publikoan lan egiten nuen bitartean. OPE-a atera eta Legutioko eskolan egin nituen funtzionario praktikak. Handik Mariturrira bidali zidaten definitibo eta trasladoa eskatu nuen Otxandiora. Otxandion 6 urte daramatzat.

##### **4. Zenbat denbora daramazu profesio honetan?**

24 urte.

## **5. Zenbat denbora daramazu eskola honetan lanean?**

6 urte.

### **Mugimendu autonomoa**

## **6. Azaldu ahal zenidake, nolakoa da egun bat eskola honetan?**

Egunaren arabera. Astelehenetan, herrira joaten gara. Herrian erronka desberdinak gauzatzen ditugu: portaletako zenbakiak bilatu, kotxeetakoak irakurri, eraikuntza baten falta dena marraztu, forma geometrikoak aurkitu...

Astearte eta ostegunetan geletan mugitzen gara norberak bere proiektu txikiak gauzatzen. Honetarako haur bakoitzak bere konpromezua hartu behar du, konpromezu hori gauzatzeko behar dituen materialak eskuratu, lana antolatu eta amaitzean, lanaren prozesua azaldu.

Asteazkenetan basora goaz. Honek ere naturaz gozatu, natura pertzibitu, behatu eta entzuteaz gain badu zerikusia autonomia eta jolasaz. Haurrak joan aurretik bueltan aldatzeko zer beharko duen pentsatu eta prestatu behar du ostean bere kabuz aldatu eta antolatu behar du maleta.

Naturan jolasa eta harremanak dira nagusi. Naturarekin kontaktuan haurrak hasieran zentzumenen bitartez jolasten du eta gero jolas hori eraldatzen doa.

Ostiraletan musika daukagu.

## **7. Nola antolatzen dira ekosistemak?**

Hezitzaile taldea asteartero biltzen da mugimendu autonomo hori antolatzeko. Nahiz eta mugimendu autonomoan aritu haur talde bakoitzak bere ekosistema du. Ekosistema bakoitzeko tutoreak prestatzen ditu guneak eta proposamenak amankomunean jartzen dira, proposamenak egin, baloratu...

## **8. Zer nolako aldaketak ezarri dituzue geletan? Zergatik?**

Mugimendu autonomoa egiteko Hh guztia beheko solairuan egon behar zen. Orain dela 4 urte ez genituen horrela. Espazioak ireki, altzairuak haurren tamainara egokitu, paretetik orri, marrazki eta txintxiringailuak kendu eta jarriz gero haurraren neurrira, espazioetarako arauak, hezitzaileen papera koreografiatu, behatu haurrak zer behar duen hori eskeintzeko eta guneak sortzeko. Eta froga pilo bat, eta jarri eta kendu eta berriro beste momentu batzuetan frogatu. Haur talde guztiak, beharrak, interesguneak, nahiak, ez dira berdinak.

## **9. Eskola honetara heldu aurretik, noizbait egin duzu lan Mugimendu Autonomoaren metodologian?**

Ez.

## **10. Zer da Mugimendu Autonomoa zuretzat?**

Lan egiteko modu bat da, moldagarria eskola bakoitzaren errealitatera. Zertan datza? Haurrari espazio eta material ezberdinak eskeintzen dizkiogu (barne zein kanpo) non, bere kabuz, bere nahi eta beharren arabera mugituko den hezitzailea bidelagun duelarik eta horrela jolasa ardatz bere ikaskuntzak garatuko dituen guk emandako aukeren artean bere beharretatik abiatuta eta ez frustrazioetan oinarritutako ikaskuntzetan.

## **11. Zure ustez, zein ekarpen egiten du Mugimendu Autonomoak Haur Hezkuntzako eskoletan?**

Haurrak berezkoa du ikertzeko joera. Ingurua, mundua... behatzen duen bitartean etengabe ari da hipotesiak planteatzen, objektuak ukitzen, ikertzen eguneroko bizitzan aurki ditzakeen materialen ezaugarriak ezagutzeko.

Haurrak berezkoa duen ikerkuntzarako nahia eguneroko bizitzako hainbat materialekin egindako proposamen irekien bidez ase dezakegu. Benetako ikaskuntza esanguratsuak sortzeko eta informazio baliagarria barneratzeko (objektuen ezaugarriak, haien arteko harremanak, ondorioak...), haurrak ezinbestekoa du materialak ukitzea, ikustea, aztertzea...; hau da, materialarekin zuzenean esperimentatzea gelan, herrian, ortuan zein naturan, aukerak izatea.

Horretarako, Ingurua ondo zaindu behar da . Espazioak eskeini (Kanpo zein barne) non, haurra modu autonomoan mugi daitekeen. Ingurune ordenatuak, sinpleak eta seguruak, estetikoki zainduak horrela, haurraren interesa piztu eta bere ikerkuntzetarako eta jolaserako babestuta sentituko da. Bide batez heldua bidaide izanik, ikaskuntzak eskuratzen joango da eta emozionalki zein intelektualki garatzen.

## **12. Eta haurraren garapenean?**

Batez ere, haurraren benetako garapen momentua errespetatzen dugu ez adinaren arabera zer jakin edo egin behar duen.

## **13. Hezitzaile moduan, Zer ematen dizu Mugimendu Autonomoak?**

Haurraren gana hurbiltzeko aukera. Ez bakarrik haurra behatzea baizik eta ikustea. Ez zer dakien baizik eta nola dagoen, zertan dabilen, zer behar duen... espazioetan jardutean egingo duena proiektatzen duen, materialak prestatu, lana antolatu eta egindakoa azaldu. Azken finean ikusi, AUTONOMOA den.

## **14. Eta zer eskatzen dizu?**

Lana, behaketa, hausnarketa, ikerketa... etengabe baina, aldi berean ez zaitu erlajatzeko uzten.

**15. Zer nabarmenduko zenuke mugimendu autonomoaz?**

.Espazio eta material anitzen eskaintza--- JOLASA

.Haurraren zaintza, segurtasun afektibo, garapenaren momentu eta atxikimenduaren zaintza.

.Hezitzaile taldearen esku hartze bateratua

**Mugimendu autonomoa eta psikomotrizitatea**

**16. Mugimendua autonomoa ezarri aurretik, nolakoak ziren psikomotrizitate saioak?**

Lantzeko modua orain dugunaren berdina baina espazioa gaur egungo gela bat zen eta orain eskolako, herriko gimnasioa.

**17. Mugimendu autonomoan oinarrituz, aldaketarik egin duzue psikomotrizitate saioetan? Zein? Zergatik?**

Bakarrik espazialki.

**18. Zure ustez, zein lotura dago psikomotrizitate saio baten eta mugimendu autonomoaren artean?**

Modua, saioaren ibilbidea berdintsua da: proiektzioa, jolasa, itxiera.

**19. Eta zein desberdintasun?**

Ez dakit.

**20. Metodologia aldatzean eskolako gela guztiak aldatu dituzue, psikomotrizitate gela izan ezik... zergatik?**

Bai aldatu genuen eta ekosistema batean mugimendurako gune bat sortu dugu.

**21. Honi buruz hausnartu, eztabaidatu duzue? Zein ikuspegi egon dira gai honekiko?**

Bai, baina batzuetan balantzan lehentasunak jarri behar dira gauza batzuk irabazteko, beste batzuk galdu. Datorren ikasturtean eskolaren eraldaketa prozesuan sartuko gara (obrak) eta espazioen itxura aldatuko da.

**Azken galdera**

**22. Galdetu ez dizugun zerbait gehitu nahi zenioke elkarrizketari?**

Beldurrak. Aldaketen aurrean hezitzaileok beldurrak ditugu. Talde berdinean egonda, guztiok ez gaude eraldaketaren prozesu berdinean: gure bizipenek, esperientziek, eragina dute haurrari eskeintzen diogun horretan. Hezitzaile taldeak elkar lagundu eta babestu behar dugu. Bidelaguntza segurtasunetik egiteko eta ez beldurretatik abiatuta.

### **3.4. ZALDUPE**

#### **Hurbilketa galderak**

**1. Zergatik erabaki zenuen Haur Hezkuntza ikastea?**

Nik oso argi neukan irakaskuntzan nahi nuela lan egin, lehenengo Lehen Hezkuntza egin nuen baina gero Haur Hezkuntza egin nuen, erakartzen ninduelako.

**2. Haur Hezkuntzaz gain beste ikasketarik egin duzu?**

Lehenengo EGB, nik euskal filologiatik egin nuen. Zientzietatik eta gero Heziketa Berezia Salamankan ikasi nuen.

**3. Hezitzaile bezala, zein izan da zure ibilbide profesionala?**

Lehenengo hasi nintzen pribatuetan, bai monjeak, fraileak, gurasoen kooperatibak, ikastoletan eta gero ahal izan nuenean, zabaldu zituztenean zerrendak ba apuntatu nintzen irakaskuntza publikoan eta orduan hasi nintzen. Bueno lehen ere, hasieran, HABE euskaltegian aritu nintzen.

**4. Zenbat denbora daramazu profesio honetan?**

30 urte inguru.

**5. Zenbat denbora daramazu eskola honetan lanean?**

2004tik gutxi gora behera.



## Mugimendu autonomoa

### 6. Azaldu ahal zenidake, nolako da egun bat eskola honetan?

2 urteko gela, eta 3-4-5 urteko gelan desberdina da, maila guztietan desberdina da eta momentu honetan, pandemia honekin, desberdina da, ez da mugimendu autonomoa hasieran zen bezala. Ez digute gelak nahasten uzten, umeak ezin dira nahastu. 2-3 eta 4-5 urte bai nahasten ditugu. Bueno, haur bat sartzen da gelan eta gero berak erabakitzen du nora nahi duen joan, bere esku dago.

2 eta 3 urtekoak sarrera malgua, 9etatik 10etara, nahiz eta denak egin berdina ba egitura edo forma bardina izan, ordutegi diferentea izaten da. Hauek hasiera hasieratik dute mugimendu autonomoa, sartu eta batera, 3 ekosistematik libre mugitzeko aukera dute. Nahi duten tokian, nahi dutenarekin eta nahi duten denboraz jolasten dute. Ondoren, gela txukuntzen da. Eta gero, elkartzen gara, eitzen dogu holako kolektiba bat edo eta sartzen gara ya, bakoitza ya bere erreferentziko gelan elkartzen gara eta hor elkarrizketak, ipuinak, anekdotaren bat... bueno, hamaiketako eta horrelakoak egiten dira. Ondoren, denboratxo bat hor egin eta gero, hau ere malgua da e ez da egunero denbora berdina, haurrak nola dauden arabera. Ondoren, patiora. Patioa, kanpo espazioa, hor ibiltzen dira denboratxo bat eta gero barrura prestatzen etxerako edo jantokirako. Egunero dinamika hau egiten dugu. Haurrei ere honek segurtasuna ematen dio, jakitea zer datorren.

2 urtekoak bazkal ondoren siestara doaz eta esnatzean ekosistema batean elkartu eta ondoren, etxera.

Gero 3-4-5 urtekoak, sarrera malgua daukagu, 9retan edo 9:30etan sartu ahal dira, ordu batean edo bestean. Goizetan 9retatik 10etara beti ekosistema bi zabalitzen ditugu, bata da psikogela eta bestea izaten gela bat, trukutzen joaten gara, baina psikogela 10ak arte beti zabalik daukagu. Orduan, astero trukutzen da gela. 10etan prestatu egiten gara, komunera, fruta jan eta prestatzen gara patiorako, patioan 11ak arte gaude. 11etan bueltatzen gara gelara eta bakoitza bere erreferentziazko gelara doa eta hor egiten dugu errutina batzuk lantzen

ditugu. Horrekin bukatzean, zabaltzen ditugu gela batzuk, iada psikogela itxita dago eta beste bi gela zabaltzen ditugu. Horrela egoten gara etxera joan arte edo jantokira joan arte. Arratsaldean eguraldiaren arabera egiten dugu. Eguraldi ona badago patiora joaten gara, asteazkenetan psikogelara joaten gara eta beste egunetan gela batean egoten gara, txandakatuz.

## **7. Nola antolatzen dira ekosistemak?**

Hezitzaile guztien artean antolatu ditugu ikusita pixka bat umeen premien eta beharrezkoen arabera eta bueno pixkanaka aldatzen doaz.

Mugimendua, esperimentazioa (mate, zientzia), sinbolikoa, arte eta hizkuntza. Adinaren arabera, material bat edo beste bat sartzen dugu.

Atsedean hartzeko tokia dago gela guztietan.

## **8. Zer nolako aldaketak ezarri dituzue geletan? Zergatik?**

Dena, gelak dira totalmente desberdinak, mobiliario aldetik. Lehen genituen armairu handiak, gehiena haurren altueran jarri da, gero kolore neutroak. Lehen mahai asko zeuden eta orain igual dago mahaitxo bat gelako. Aldaketa izugarriak. Orain material naturala, egurrezkoak, errealak izaten saiatzen gara eta plastikoa kendu. Ez dirudi eskola berdina denik. Beste goxotasun bat dago gelan, txukuntasuna.

## **9. Eskola honetara heldu aurretik, noizbait egin duzu lan Mugimendu Autonomoaren metodologian?**

Ez, garai hartan ez zegoen Mugimendu Autonomorik. Beste metodologi batzuk baina bueno.

## **10. Zer da Mugimendu Autonomoa zuretzat?**

Haur guztien garapen osoa eta orekatua eta garapen horren dimentsio guztietan, ba lortzen dugunez metodologia bat izango zen eta oinarrizko kompetentziak garatuz lortu nahi dugu hori. Familiekin lankidetzan estuan arituz.

Gure begirada ere aldatzen da, lehen esan dugun moduan, haurra dago erdigunean. Lehen guk gidatzen genuen dena eta orain haurra bera ikusten dugu bere osotasunean. Orain haurrari akonpainamendu bat egiten diogu. Haurra bere osotasunean ikusten da.

## **11. Zure ustez, zein ekarpen egiten du Mugimendu Autonomoak Haur Hezkuntzako eskoletan?**

Espazio desberdin gehiago, ikasleen eskura jartzeko aukera. Baita material desberdinekin aritzeko aukera izatea, maila desberdinetako ikasle guztien arteko harremana izatea. Gero ikasleak espaziotik mugitzen diren bitartean ba laguntza jasotzeko aukera handiagoa. Haurra izatea erdigunea eta hortik abiatu behar gara denok, hori da garrantzitsua. Horrela haurrak nahi duena egiten du, laguntza behar duenean eskatzen du eta kritikotasuna bera joaten da lortzen.

## **12. Eta haurraren garapenean?**

Autonomian, erabakiak hartzeko aukera dutelako eta baita ardura beraien ekintzak egin behar dituztenean. Hezitzaileon aldetik, lehenengo egin behar duguna da lotura afektibo hori ezarri behar dugu. Guk erabaki horiek hartzeko aukera eman eta horrela berarengan konfiantza dugula erakutsi.

## **13. Hezitzaile moduan, Zer ematen dizu Mugimendu Autonomoak?**

Lan asko, lehenengo eta bat. Buelta pilo bat, hau dana eraldatzeko egokitzen, oraindik jarraitzen dugu egokitzen. Behaketak ere bai, baina bueno. Beste alde batetik be umeengana heltzeko aukera gehiago.

Orokorrean pozik, ikusita haurrak zelan doazen, gustora daoaz eta aldaketa guztien moduan hasieran gogorra eta helduko garen maila horretara.

#### **14. Eta zer eskatzen dizu?**

Momentu guztietan behaketa bat egiten egotea eta klaro gero behaketa hori eboluzio bat egin behar da beste irakasleekin, ze klaro ekosistema desberdinetatik dabiltzalez informazioa irakasle askok dute eta hori konpartitu egin behar da. Irakasleen arteko koordinazio bat ikasleen behaketa egiten dugunean.

#### **15. Zer nabarmenduko zenuke mugimendu autonomoaz?**

Haurrak oso ondo daudela eta autonomoago. Haurrak beraien desioak asetzen daude eta lasai daude. Beti beraien interesetatik abiatuta.

### **Mugimendu autonomoa eta psikomotrizitatea**

#### **16. Mugimendua autonomoa ezarri aurretik, nolakoak ziren psikomotrizitate saioak?**

Aucouturier-en psikomotrizitate ildotik eramaten genuen. Psikomotrizitatean beti egon da begirada, akonpainamendua, haurra zen oinarria eta hortik abiatuta, bere garapen bat. Haurrari laguntzen genion bere garatze horretan zituen beldurrak eta oztopoak gainditzen materialen bidez eta horrela egiten genuen lan.

Psikomotrizitatean haurra zen erdigunea eta gelara bueltatzean ez zen erdigunea, orain hau ez da gertatzen. Psikomotrizitatean erdigunea da eta ekosisteman ere erdigunea da.

**17. Mugimendu autonomoan oinarrituz, aldaketarik egin duzue psikomotrizitate saioetan? Zein? Zergatik?**

Orain denbora gehiago daukagu psikomotrizitate gelara joatekoa, zeren 2 urtekoek beraiena dute, orduan egon guztian dute beraien disponibilitatera. 3-4-5 urtekoek goizean daukagu, beraientzako. Saioak gehiago dira eta gure ustez oso garrantzitsua da psikomotrizitatea Haur Hezkuntzan. Aldaketa handiena hori izan da, ze materiala eta hori ez da askorik aldatu. Aucouturier-en metodologia jarraitzen da, saio bezala egiten dugu. 2-3 urte bitartean Mugimendu Autonomoaren barruan murgildu da, aldiz 4-5 urte bitartean astean saio bat izaten da.

2-3 urtekoek aukeratu egiten dute ekosistema bat bezala, 4-5 urtekoek saio bezala.

**18. Zure ustez, zein lotura dago psikomotrizitate saio baten eta mugimendu autonomoaren artean?**

Haurra dela erdigunea.

**19. Eta zein desberdintasun?**

Ez dakit.

**20. Metodologia aldatzean eskolako gela guztiak aldatu dituzue, psikomotrizitate gela izan ezik... zergatik?**

Ez dakit.

**21. Honi buruz hausnartu, eztabaidatu duzue? Zein ikuspegi egon dira gai honekiko?**

Hausnarketa asko ari gara egiten, gauza guztien artean, protokolei buruz. Ez dakit heldu garen puntu horretara, baina hainbeste protokolo gauden egiten, ez

dakit ukitu dugun hori. Ez baina, bueno erabaki dugu 2 urteko gelan garrantzitsua dela gela hori egotea, bai erabaki dugu 3 urteko geletan presentzia gehiago izan behar duela eta ez saio bat astean zehar. Hausnarketak bai egin ditugu eta ahal izan dugun neurrian, ba bueno, bete. 4-5 urteko geletan gustatuko litzaiguke saio bat baino gehiago izatea baina ez da posible.

### **Azken galdera**

**22. Galdetu ez dizugun zerbait gehitu nahi zenioke elkarrizketari? Nondik sortu zen ideia hau?**

Ez zait ezer gehiago bururatzen.

### **3.5. NERE INDA**

#### **Hurbilketa galderak**

##### **1. Zergatik erabaki zenuen Haur Hezkuntza ikastea?**

Esango nuke bokazioz, batzuetan aukeratzen dala karabola batzun bidez eta beste batzuk bokazioz, eta igual hasieran onartu behar dut ez nekiela zer zen Haur Hezkuntza ezta ere, baina bueno, umeak oso gustuko nituenez, ba erabaki nuen magisterio egitea eta aukera guztien artean dudarik gabe Haur Hezkuntza. Orduan neukan Haur Hezkuntza eta haurrarenaganako irudia eta gaur egun daukadana ez da berdina, egin dut horrelako ibildidexa edo progresio, bueno ez dakit progresioa den edo ez baina egin dot begirada aldaketa bastante.

##### **2. Haur Hezkuntzaz gain beste ikasketarik egin duzu?**

Haur Hezkuntza ikasi ondoren, erabaki nuen beste zerbait ikasi behar duela eta egin nuen Hizkuntza Psikopedagogia. Ba, hizkuntzak nola ikasten diren, zein inportantzia daukan, norberaren nortasunaren eraikuntzan eta bueno, hortik aritu nintzen eta ondoren honekin lotuta egin nuen mintzamina eta hizkuntzako bestelako master bat. Bueno, hori egin nuen suertatu zitzaidalako baina bueno, garrantziarik gabe. ALE ere egin dut, eta gero egin ditut ez dakit zenbat ikasketa. Baina unibertsitate aldetik ez.

##### **3. Hezitzaile bezala, zein izan da zure ibilbide profesionala?**

Hasi nintzen udalekuetan eta hor ikasi nituen gauza batzuk, gerora, gaur egun konturatzen nazela ba profesional batzuk ez dutela balage hori. Zein balage? Ba igual ez hainbeste akademikoa, baizik eta taldean aritzeko, lanak aurrera ateratzeko, eta igual itxaron barik norbaitek esango zer egin behar dan, noizko eta ez dakit zer, ba norbera konturatzen denean hasten da gauzak egiten, eta nik uste hori udalekuetan ikasten dela. Eta gero, estrategia desberdinak, zure taldetik harantzago, ez, ba komunitate bezala, nora joan, pistinara joan behar bagara,

liburutegira... bueno badira gauza batzuk unibertsitatean ez direla ikasten eta direla plus bat, nire ustez.

Bukatu nuenean magisteritza hasi nintzen Psikope egiten, egin nuen urte bete, eta, ziren, bi ikasturte eta gero grala eta urte hori bukatu baino lehen zerbait gehiago nahi nuen eta ikusi nuen euskal telebistan, Boisen eta Idahon behar zela ikastolan hezitzaile bat. Bidali nuen bertara curriculum inongo esperantza barik eta onartu egin ninduten, orduen, joan nintzen Boisera urte betez, urte eta piku, hango hezitzaile izatera. Eta gero, bertan erabaki behar nuen beste bost urte gelditu edo etxera buelta. Eta esan nuen, etxera, karrera bukatu, ze itxi neban hankaz gora, bueltatu nintzen eta Psikope egiten nengoen bitartean hasi nintzen Gasteizko haurreskoletan lanean, udalak zituen haurreskola batzuetan oso ondo funtzionatzen zutenak baina erabaki politikoengatik itxi egin zituzten.

Ordezkapenak egin nituen Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan. Ez dakit guztira zenbat eskola pasatu ditudan, laurogeita piku uste dut, egun batekoak, bi egun.. eta horrela. Honela ikusi nuen zein zen planteamendua eskola desberdinetan eta hori oso aberasgarria da.

Ondoren oposaketak aprobatu, praktikaldia egin eta ordiziko berritzegunean atera zen postu bat Haur Lehen Hezkuntzako aholkulari bezala. Hemen ere uste nuen ez nindutela hartuko eta hartu egin ninduten. Hurrengo urtean nagusiena haur hezkuntzako plaza eta niri haur hezkuntza gustetan jat eta orduan haur hezkuntzan hasi nintzen eta azkeneko zazpi urteetan edo egin dugu ibilbidea.

Laburbiduz, hauxe da.

#### **4. Zenbat denbora daramazu profesio honetan?**

8 urte uste dut, Berritzegunean. Eta ez dut inoiz erreplikatu eskola bakar bat ere ez.

#### **5. Zenbat denbora daramazu eskola honetan lanean?**



## **Mugimendu autonomoa**

### **6. Azaldu ahal zenidake, nolakoa da egun bat eskola honetan?**

Orokorrean, bueno, eskola bakoitza mundu bat da, bere ordutegia dauka, bere arauak ditu intrisekuak. Orduan berez, mugimendu autonomoa ahalbideratu egin beharjakie umeari eta da sartzen dan momentutik entzuda sentitu behar da konturatu behar da talde baten partaide dala eta arau batzuk badauzela, asko ez baina batzuk bai, bizikidetzeta eta gizarte arau batzuk eta gero berak erabakitzen du nundik egin, zertan ibili, norekin ibili, zenbat denboratan ibili eta hezitzailearen lana da horrerri akonpañamenduakin bere beharrak asetzea, entzutea, egiten dauen edo ez dauen horren inguruko errelato bat edo abstrakzio bat ateratzea eta berez nik esango nuke mugimendu autonomoa ahalbidetzen deuen eskola batek zaintza duela oinarri, zaintza edo begirada hori landuta egon beharko litzateke behintzan eta lenguaiak. Hortz, bestea euren eskola nolakoa den zehatz mehatz, baina berez, egun bat da berak egiten duela bere ibilbidea eta amankomunean dauden leku batzuk daude talde handian egongo direnak eta gero jantokia eta. Egia da covid-arekin asko mugatzen dela baina berez espazio guztietatik ibili ahalko litzateke.

### **7. Nola antolatzen dira ekosistemak?**

Eskola bakoitzak antolatzen du nahi duen moduan. Lenguaiak daude. Lenguaia horren konbinazioa izan daiteke nahi dozun bezala eta gainera lenguaia danak euren artien harremana dute baina zela gure estruktura mental historikoagatik pentsetan dogu mate dala estruktura bat, hizkuntza dala beste bat, eraikuntza dala beste bat eta gero konturatzen zara dana dauela danien, baina bueno.

Sinbolikoan honek kriston lekua behar du, propioa. Baina gero daude konbinazio danak, nahi dituzunak.

### **8. Zer nolako aldaketak ezarri dituzue geletan? Zergatik?**

Estetikoa, oso agerian geratzen da.

Begiradakoa, hau da, asko kostatu da edo kostatzen da benetan sinestea haurrak berak erabakitzen deuela bere ibildea. Beti pentsatzen dugu helduok egin behar dugula zerbait haur horrek zerbait egin behar duela, produkzioan ibili behar duela, baina begira egonda ere ikasten ari dela. Beti pentsatzen dugu haurra zerbait egiten ibili behar dela baina bueno trankil, egingo dau zozer. Begira ere ikasten ari da.

Zaintza, ze lehen igual ez ginen hain konstante komunera joatea, mokuak, botaka, gaixotasunak, suposatzen zan, danok egiten genuela “ondo” baina horren kontzientzia hartzeak egiten dau eskoliak beste goxotasun bat edo beste begirada bat umearenganiko eta bere garapenarekiko. Horrekin batera da hezitzaile taldearen eskuhartze bateratu bat. Oso ohituta gaude bakoitza bere gelan egotera, zuk uste duzuna egiten duzu baina ia Mugimendu autonomoak funtzionatzen duenean, bueno tranpatxo batzuk egiten dituztela uste dut, baina bateratuagoa da, hitz eginda dau, zer, zertarako, nola, zer bai, zer ez, non dauden mugak... eta lehen hori ez zen hain hain, lehen elkartzen ziren erabakitzeko batez ere, karnabaletan zerez jantzi nahi ziren, egun hori zelakue izen biher zan eta hori, oso gauza azalekuak. Hori bada beste aldaketa bat. Nik uste dut honek direla; estetika, begirada, zaintza, hezitzailearen esku hartze bateratua, eta horrekin intritseko haurraren ibilbidea eta ebaluazioa edo balorazioa. Orain arte beti beti, baloratzen zen edo hobeto esanda, ebaluatzen zan haurra eta horretan zentratzen ginen, baiian gu “caballito blanco” , guk esku hartze hori ez zan ebaluatzen eta klaro orain bai, mahai gainean jartzen da guk eskaitzen dugun horretan, haurrak eitzen dau bere ibilbidea, orduan nik zer eskaitzen dot?

Materiala ere, zertarako erabili, zein zan gure helburua. Ez dira proiektuak egiten. Hau da, proiektu makroak, gela osoa proiektu bat. Hau ez da esanguratsua danentzat, hori ez da inklusiboa. Proiektu txikiak egiten dira, bakoitzarenak, binaka, hirunaka, horiek bai baino makroproiektuak ez. Hau ere beste aldaketa bat da. Eta zuk nahi baduzu proiektu horiek gauzatu ba bai edo bai materiala aldatu behar duzu, espazio horren egokitzapen bat egin behar duzu gauzatzeko. Batzutan tranpatxoak eginda eta beste batzuetan tranpak egin gabe. Ni lasai nago zeozer urtengo dau. Hezitzailearen ibilbidearen arabera.

**9. Eskola honetara heldu aurretik, noizbait egin duzu lan Mugimendu Autonomoaren metodologian?**

Ez.

**10. Zer da Mugimendu Autonomoa zuretzat?**

Berez mugimendu autonomia dekretua aurrera eramateko modu bat da. Ituri desberdinetatik edan, dekretua irakurri eta bueno ba aurrera eramateko modu bat. Baina ez bidea egin dugu zerotik, guk asmatu dugu, ez dut esango ensayo error, ze ez da baiana hasiera baten papelian oso argi genituen gauzak gero ikusten duzu eskola desberdinetan ez duela funtzionetan eta eraldatu eta modifikatzen duzu eta beste gauza batzuk esaten duzu honek funtzionetan dau, holan bai.

Oso galdera ona. Ba nik esango nuke haurren garapen osoa eta orekatua lortzen laguntzeko modu bat dela.

**11. Zure ustez, zein ekarpen egiten du Mugimendu Autonomoak Haur Hezkuntzako eskoletan?**

Nik uste dut ekarpen handiena haurri berari eta familiari egiten diola. Eta gero beste bat da, beste plano batean, hezitzaileei. Nire susmoa da orain arte Haur Hezkuntzako, eta oraindik ere bai, Hezkuntza Sailak eskaintzen dituen edozein proiektu beti esaten da pentsatu dutela Lehen eta Bigarren Hezkuntzara bideratuta dagoela eta Haur Hezkuntzakoak egokitu, hau da, beti geratzen gara “como de segunda categoria”, garelako sistemako partaide batzuk baina badeko empoderamiento bat, badakigu denok gabiz zozetan eta denok gabiz horretan. Komunitate aldetik ere eskola batek edukitzea honelako proiektu bat emoten dotzola jarkizun bat.

## **12. Eta haurraren garapenean?**

Barrutik kanporakoa, orain arte egin duguna da estimulazioa. Estimulatu kanpotik, ta bueno, ez dago txarto baina guk benetan nahi baldin baditugu, ez dakit, indibiduo konpetenteak inutil batzuk bihurtzen ditugu horrela, zeren guk esaten badiegu zer egin, nola, zertarako, zenbat denboran, zer orri klase, zein letra, dana esan behar dotzazu, besteak bakarrik egiten dau “amen”. Bestean egiten dena da, nik hau eskaitzen dotzut, zuk zer nahi duzu egin? Eta lehenengo etapa horretatik bazatoz apurtze bat, zelanik gura doten, jarri behar dira mugari batzuk “hortik ezin zara pasau, baina beste dana nahi duzuna”. Ba bai uste dot bera ezagutzeko aukera, ingurunea ezagutzeko aukera, bere estilo, beharrak eta mailak zeintzuk ezagutzeko aukera eta behin hori dana jakinda eta kokatzen zarenean uste dut komunitadean kokatu ahal zarela, eta komunitadean kokatzen zarenean ez zara marioneta bat.

## **13. Hezitzaile moduan, Zer ematen dizu Mugimendu Autonomoak?**

Uste dut, bakardadetik atera, ze lehen oso bakarti sentitzen ziren, bakoitza bere gelan eta gero ya sisteman galduta. Orduan, elkarrekin lan egitea gogorra da ze azkenean harremanak dira, baina emoten dotzo enpoderamientu bat eta emoten dotzu talde saretze bat orainarte ez zutena.

## **14. Eta zer eskatzen dizu?**

Inplikazioa eta dedikazioa. Orduan, zu kokatzen bazara hau dirua ateratzeko lan bat bada bezala ba Mugimendu Autonomoa zuretzat oso zaila izango da barneratzea, zeren eskatzen du benetan inplikazio bat. Zu bazoaz, bokazioz eta lanbide bezala Haur Hezkuntzara eta Mugimendu Autonomoan aritzen bazara, da gozamen absolutu bat, baina orduak sartu behar dira.

## **15. Zer nabarmenduko zenuke mugimendu autonomoaz?**

Jo ba nik uste dut errespetua eta sinestea indibidua pertsona bat dela.

## **Mugimendu autonomoa eta psikomotrizitatea**

### **16. Mugimendua autonomoa ezarri aurretik, nolakoak ziren psikomotrizitate saioak?**

Oraingoaren berdinak.

### **17. Mugimendu autonomoan oinarrituz, aldaketarik egin duzue psikomotrizitate saioetan? Zein? Zergatik?**

Ez dogu egin eta nahita ez dogu egin. Zergatik? Ba taldekide bezala iruditzen jakulako taldea taldea dela eta psikomotrizitatea sakratua dela. Psikomotrizitatea ulertuta talde kohesio eta talde horretan indibiduo bakoitzak daukan garapenarekin ulertuta, psiko psiko bezala utzi, sakratu bezala. Hau oso taldekoa da eta orduan hau ez dugu ikutuko.

### **18. Zure ustez, zein lotura dago psikomotrizitate saio baten eta mugimendu autonomoaren artean?**

Loturia, ba esango nuke haurra ikusteko begirada horretan. Bere ahalmenak, bere bizipenak, barrutik kanporako ibilbide horretan. Hor antzekotasun handi handia dute edo berdinak dira, ez? Ba arauak, mugak. Nik esango nuke, esentzia berdina daukiela. Bakarrik psikomotrizitate saio bat psikomotrizitateko saio bat da eta hor ikusten dituzun gauzak gero ekosistematan ere ikusi ahal izango dira baina bada espezifikoagoa, badauka beste begirada bat, beste fintze bat dauka psikomotrizitate saio batek.

### **19. Eta zein desberdintasun?**

Psikomotrizitate saio batean gauza batzuk ikusten dira eta ekosistematan beste batzuk eta hauek euren artien bat egin behar dute informazio gehiago ateratzeko. Psikomotrizitatera taldekoak doalez, talde horretan nola konportatzen dan ikusi daiteke eta igual ekosistematan, ez da hain nabarmen.

**20. Metodologia aldatzean eskolako gela guztiak aldatu dituzue, psikomotrizitate gela izan ezik... zergatik?**

Psikomotrizitateko blokeen fundak aldatu dituzte eskola batzuetan. Plastikotasuna eta kolore biziak kentzeko asmoz. Fundak tela goxo batez egin ditzute eta koloreak apalakoak. Estetikotasuna eta zentzumena kontuan hartuz. Bizkaian ez dut ezagutzen hau egin duten eskolarik.

**21. Honi buruz hausnartu, eztabaidatu duzue? Zein ikuspegi egon dira gai honekiko?**

Bai, hausnartu dugu eta eztabaidatu dugu asko. Igual ia izan behar zan tutorizazioaz arteko taldea psikomotrizitatera joaten dena, ia izan beharko zan gehien ibiltzen diren hurrei eskainitako psikomotrizitate saio bat, ia izan beharko zan bakoitzak nahi duenean juteko saio bat, aritu gara horren inguruan berba egiten asko. Eta gure artean iritzi kontrajarriak ditugu, orduan ez dugu erabakarik hartzen. Ikuspegi asko eta desberdinak, adibidez, bakoitzak nahi duenean joatea, ez. Psikomotrizitate saio batek estruktura bat dauka eta nahi duenak nahi duenean joaten bada hori ezin da egin. Taldekatzeak nola? Tutorizazioko berdinak, elkarrekin gehien ibiltzen direnak... eta hor eskola batzuk daukie hiru lerro eta horrela, 3 urteko 3 gela eta horrela eta segun ze lekutan oso oso zaila da. Horregatik ez dugu meloi hau zabaldu.

**Azken galdera**

**22. Galdetu ez dizugun zerbait gehitu nahi zenioke elkarrizketari? Nondik sortu zen ideia hau?**

2015. urtean dekretuak irten zuenean, kompetentziak eta niri tokatu jatan joatia eskoletara azaltzen zer esaten zuen dekretuak eta arrazoi danakin esaten doztien bale oso ondo baina nik ez daukat denborarik hori aurrera nola eraman pentsatzeko, egunerokotasunarekin nahikoa daukat. Orduan galdetu nuen, zeozer pentsetan badugu formazio hori hartuko zenukete eta erantzuna baiezkoa izan zen. Bale ba dekretua aurrera eramateko modu bat pentsetan, hasieran ambienteak deitzen ziren, ez ekosistemak. Lenguaiakin horrela harremantzen

zara norbanakoekin eta besteekin, hasi ginen ematen formazioa eta azpeitikoak esan dozkuen honi izen bat jarri behar zaio, ez, dekretua aurrera eramateko modu bat da, izena jarri behar zaio eta azkenan, asmatu genuen mugimendu autonomoa. Mugitzen delako eta mugimendu hori barrutik kanporakoa delako eta bakoitzak aukeratzen duela, gorputzaren garrantzia eta pixka bat garatzea eta autonomoa ez dalako guzti askea, arau batzuk daudelako, baina autonomia horrek eraikitzen laguntzen du benetan zure apendizaiia eta jabetza eduki eta autonomia bat eduki. Eta horrela sortu zan mugimendu autonomoa, dekretua aurrera eramateko modu bat bezala. Gero pelotia handiagoa egin da eta gero juntadizoak eta dena, baina bueno, polita da eta jentia ya badabil barneratzen poliki poliki, baina oraindik asko gelditzen da.

Eskola aldetiko prestutasuna? Bai, baina lan asko da eta lan pertsonala, eta errazagoa da esatea zer egin behar den eta azkenean honek ni aldatzea eskatzen dau eta ez umia. Lan pertsonal handia da eta asko ez daude prest egiteko, arrazoi pertsonalak, zona confort. Hasieran tsunami bat, danetara ezin naz heldu. Asko gusta ezker poliki egitea ere zaila da. Gelen estetikotasuna aldatzetik hasi ginen. Gero ebaluaziotik jarraitu genuen. Gero saiatzen gara leku ezberdinetatik pixkat abordetan jakinda leku berdinerara heldu behar garela eta beste batzuk beste ibilbide bat daude egiten. Zer egiten dugu zer ez dugu egiten eta zertara ari garen eta gero aldatu espazioa. Nire iritzia da ez badozu prust aldatzen zeozer eta gero ya deskoloke horretan mobidu egin behar zara egon ahal zarela urtiak formatzen baina ez eraldatzen eta ume baten urte beteko bizia da jo ba bere herena, pilo bat da urte bete eurentzako.

Ebaluazioa, lehen umea eta zer ez duen egiten. Orain ebaluatzen da irakaslea, ekipoa, zer eskaintzen den espazioa, zenbat denbora, zer esku hartze egiten duzu, zelan egiten diozu berba, zer nahi dozu lortu, familiarekin zer eitzen dozu, zer ez dozu eitzen, noiz eitzen dozu, zergatik... eta umearena da ze eboluzio izan duen, baina ez zer ez duen egiten. Egin duen ibilbidea.

Eskola-familia elkarlana, asko kostatu. Umea eurena da eta zu zara urte batzutako akonpainamendua.